



2011/2012ko LEKUALDATZE-LEHIAKETA

ZUZENDARITZA-KARGUAK

2011ko azaroaren 15etik aurrera, karrerako funtzionario irakasleek <http://www.irakasle.net> Internet-eko helbidean ikusi ahal izango dute bete dituzten eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren datu-basean dauden zuzendaritza-karguen historiala. Historialean agertu behar dira ondoko zuzendaritza-karguak:

- Zuzendaria, zuzendari albokoa, zuzendariordea
- Idazkaria, idazkari albokoa, idazkariordea
- Ikasketa-burua, ikasketa-buru albokoa, gaueko ikasketa-burua

Dagoen informazioarekin ados egon ezean, "alegazioen orria" bete eta Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzan aurkeztu beharko duzu, dituzun justifikatzeko agiriekin batera, 2011ko azaroaren 15etik 30era bitartean, ondorengo ordutegian: astelehenetik ostegunera (9:00 - 13:00 eta 15:00 - 16:00) eta ostiraletan (9:00 -14:00).

Honek emango du datu-basean izan daitekeen edozein akats zuzentzeko aukera. Ondoren, informazio hori ofizioz zenbatzeko erabiliko da, deituko diren lekualdatze-lehiaketan merezimendu gisa, eta lehiaketan parte hartzen duenak ez du adierazitako zuzendaritza-karguetan jardun izanaren egiaztagiririk aurkeztu beharko.

Nola kontsultatu zuzendaritza-karguen historiala:

<http://www.irakasle.net> helbidera sartu ondoren, datu hauek sartu beharko dituzu:

- irakasleen posta elektronikoaren erabiltzailea eta pasa-hitza (irakasle.net) edo,
- NANA eta irakaslegunera sartzeko pasa-hitza.

(Sartzeko pasa-hitza gogoratu ezean, aipatutako Internet-eko helbidean pasa-hitza berreskuratzeko zerbitzu bat izango duzu eta, horretarako, "pasa-hitza berreskuratzea " atalera sartu beharko duzu).

Ondoren, "Administrazio-izapideak" atalean, aukeratu beharko da:

"Lekualdatze-lehiaketa" - "Zuzendaritza karguak: historiala eta alegazio orria"

Gasteizen, 2011ko azaroaren 14an

LANGILERIA KUDEATZEKO ZUZENDARIA

JUAN MANUEL ARAMENDI ARTEAGA